

Antzinaroko hooliganak

BARTZELONAKO MUSEO ARKEOLOGIKOA



Erromako Zirkuko Maximoko koadriga lasterketak irudikatzen dituen mosaikoa.

ERROMA, K.O. I. MENDEA. Neron enperadoreak, Zirkuko Maximoko zaldi lasterketen zale amorratua izanik, kirola diruz laguntzea eta arautzea erabaki zuen. Gladiadoreen arteko borrokak erromatarren pasioa zirela esan digute literaturak eta zinemak. Baina zaleen arteko grina primitiboenak eta lehia muturrekoenak Zirkuko Maximoko hondarretan askatzen omen ziren, ez Koliseoan.

Inperioaren garaian lau talde nagusi lehiatu ohi ziren koadriga lasterketetan: gorriek Marte gerraren jainkoaren omenez zeramaten kolore hura; zuriak haizearen jainko-jainkosen taldea ziren; berdeek Ama Luraren kolorea defendatzen zuten; eta urdinek zerua eta itsasoa sinbolizatzen zituzten. Neronek diru-laguntzak eman zizkien lau taldeei, lasterketa berean talde bakoitzeko hiru gurdi lehiatzeko baimena eman zuen, eta orgazainei denboraldi betean beste talde batean "fitxatzeko" aukera zabaltzeko zien. Handik urte gutxira Domizianok beste bi talde sortu zituen, moreak eta urre kolorekoak, baina ez zuten zale kopuru handirik lortu eta desagertu egin ziren.

Erromatar zirkua lehia gogorra muturrera eramane zuten Bizantzioko hipodromoan. Erromako lau klub artean nagusiki urdinak eta berdeak nabarmendu ziren Bizantzion. Eta zaletasunak kirolaren muga gainditu zuen; taldea aukeratzeak konnotazio militar, sozial, politiko eta erlijiosoak zituen. Esaterako, berdeek merkataria eta errentaria ordezkatzen

zituzten eta monofisismoaren jarraitzaileak ziren, hau da, Jesus funtsean jainkozko izakia zela uste zuten, giza ezaugarriarik gabea. Urdinak, aldiz, lurjabeak eta aristokratak izan ohi ziren. Eta ortodoxoak. Justiniano enperadorea urdinzalea zen.

Lasterketarik ez zenean ere, batzuk zein besteak taldetan bildu ohi ziren arerioen zaleei erasotzeko. Kaleko borroka haien ondorioz zaurituak eta hildakoak ohikoak ziren.

Justinianoren erregealdi luzeak krisirik larrienetakoak lasterketa zaleak izan zituen protagonista. 532. urtean tenka areagotu egin zen enperadoreak zergak igotzea erabaki zuenean, Bizantzioren eta Pertsiaren arteko negoziazioek eraginda. Aurkakotasun erlijiosoak ere pil-pilean zegoen. Eta, azkenean, bolbora hipodromoan piztu zen. 532ko nahasmenduei Nikaren Istiluak esan zieten, matxinoek *nika* (garaipena) oihukatzen baitzuten, hipodromoan egon ohi zuten legez. Errebolta hiri osoan zabaltzeko, hainbat jauregi eta Santa Sofia bera kaltetzeraino. Gainera, Justinianok ez zuen bere taldeko zaleen (urdinen) babesa jaso; behingoz, berdeek eta urdinek bat egin zuten enperadorearen aurka. Eta Hipatio izendatu zuten behin-behineko enperadore. Teodora enperatrizak eta Belisario jeneralak altxamendua itzaltzea lortu zuten. Horretarako, kaleak zale urdinen eta berdeen odol gorritz tindatu zituzten. ■



Arrastoak

Nondik dator "Brasil" toponimoa?

BRASIL IZENAREN jatorri etimologikoa oraindik argi ez dagoen arren, Adelino José da Silva Azevedo filologoaren teoria da onartuena. Haren arabera, hitzak zelterazko *bar-kino* izango luke jatorri; feniziarrek koloreztatzaile gorria izendatzeko baliatzen omen zuten. Erdi Aroan, koloragariaren erabilera zabaltzeko ahala, izenak hainbat aldaera hartu zituen: genoarrek *brazzi* esaten zioten, gaztelarrek *brasil*.

XVI. mendearen hasieran, Pedro Alvares Cabral buru zutela, portugaldarrak egungo Brasilera iritsi zirenean, *Caesalpinia echinata* espezieko zuhaitzekin egin zuten topo. Zuhaitzetik kolore gorri biziko zura eta tindagaia lor zitezkeen eta portugaldarrek *palo brasil* esan zioten. Enborrak Europara esportatzen hasi ziren berehala, ia espeziea desagertzera. Baina izenak iraun egin zuen nonbait, Brasilgo gainerako sinbolo nagusietan kolore gorriaren arrastorik geratu ez den arren. ■



FLAG ART

Kolore gorriak eman zion Brasil izena, baina horren arrastorik ez dago Brasilgo banderan.